

Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

## Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

**Ikasturtea: 2014/2015**

**Tituluaren gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua**

**Oinarrizko dimentsioa: problemak ebaztea**

Ikasketa Planean adierazitakoa: Problemak eraginkortasunez ebaztea, eskuratutako gaitasunak eta trebetasunak erabilia balizko aukerak identifikatzeko eta baloratzeko.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



Lan Harremanen U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations

# 1. maila: Problemak Ebazteko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

## 1. MENDERATZE MAILA

Problema sinpleak ebaztea, emandako informazio iturriak erabilia.

## 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
<b>Beharrezkoak diren etapak planifikatzen ditu, planteatutako problema eraginkortasunez ebazteko.</b>	Planteatutako problema ebazteko beharrezkoak diren etapak ongi egituratzen ditu.
<b>Beharrezkoa den informazioa biltzen du, adierazitako iturriak erabilia.</b>	Adierazitako informazio iturrietara jotzen du, eta datu zuzenak biltzen ditu.
<b>Informazioa modu argi eta koherentean laburbiltzen eta bereganatzen du.</b>	Jasotako informazioa modu argi eta koherentean laburbiltzen du.
<b>Arazo globala ebazteko beharrezkoak diren ondorio zuzenak eskuratzen ditu.</b>	Aurkeztutako problema zuzen ebazten du, eta ondorio argiak eta ongi argudiatuak ematen ditu.



Lan Harremanen U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

### **3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK**

Ekonomia Politikoa (gaitasuna koordinatzen duena), Administrazio Zuzenbidea, Zuzenbide Zibila, eta Sozietateen Zuzenbidea.

### **4. ZEREGINAK**

- Saiakerak egitea, eta gaiari egokitutako hainbat problema ebaztea, eta lanak aurkeztea, idatziz nahiz ahoz.

### **5. EBALUAZIO SISTEMA**

Ekonomia Politikoa (gaitasuna koordinatzen duena) irakasgaiak gaitasun hau bere ebaluazio protokoloan jasotzen du, eta ikasleak ebaluatzeko orduan erabiltzen du.

Ekonomia Politikoa:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, problema sinple baten saiakera kritikoa eta aurkezpena egin behar da, honako hauen bidez: problema ebazteko egin beharreko ibilbidea islatuko duen kontzeptu mapa bat egitea, horrek esan nahi du erabilitako informazio iturrien eta bakoitzean bildutako datuen idatzizko aurkezpen ordenatu bat egin behar dela; saiakera idatzi



Lan Harreman U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

kritiko bat, problemaren ebazpenerainoko ibilbidea azalduko duena, pauso guztiak adierazita; eta, ahozko aurkezpen bat, laguntza bitartekoen bidez, non problemaren ebazpena jendaurrean azalduko den.

Gaitasunaren ebaluazioak adierazle guztien ebaluazioa jasotzen du; hala, 2., 3. eta 4. adierazleen balioa osoaren % 30 da, eta 1. adierazlea, berriz, % 10; guztira irakasgaiaren azken notaren % 40 da.

#### Administrazio Zuzenbidea:

Lehenengoa ez beste gaitasun orokorraren gainerako adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, eskainitako informazioa aztertu, eta ebatzi beharreko problemak identifikatu behar dira. Gero, idatziz adierazi behar dira hautemandako problemen soluzioak, dagozkion argudio juridikoekin batera.

Gaitasunaren ebaluazioak lehenengoa ez beste adierazle guztien ebaluazioa aurreikusten du, haren balioa nota osoaren % 25 izanik.

#### Zuzenbide Zibila:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, kasu praktiko bat egin behar da taldean. Kasu horri ondorio juridikoa aplikatu behar zaio, eskainitako arau juridikoa eta jurisprudentzia aintzat hartuta.



Lan Harreman U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Problemak ebazteari lotutako praktikaren balorazioa osoaren % 20 da.

Sozietateen Zuzenbidea:

Gaitasun orokorraren adierazle guztiak ebaluatzen ditu, ikasturtearen hasieran ezagutzera emandako ebaluazio sistemaren bidez.

Gaitasuna ebaluatzeko, testuinguru sozioekonomiko edo problema berri bat aurkeztu behar da kazetaritzako albiste baten bidez, bideo batez edo sarearen bidez. Gero, problema bateratu behar da, egoera berrira egokitzea erraztuko duen jardunbide bat diseinatze aldera, eta aztergaiaren alderdi nagusiak jaso behar dira, dokumentu batean edo jardun gida batean (bakarka edo taldeka); gida horren arabera, ikasleek edo lan taldeak informazio juridikoa, ekonomikoa eta soziala bilatuko dute, hainbat iturritan; bilatutako informazioa bildu ondoren, lan taldeak, proposamenak aztertu ondoren, planteatutako problemari aurre egiteko eta gainditzeko bide egokiena adostuko du. Gero, lanaren memoria aurkeztu eta azalduko du, horren barruan jarraitutako prozedura eta planteatutako problemari egokitzeko plana edo proiektua sartuta.

Gaitasunaren ebaluazioa nota osoaren % 10 da, eta adierazle bakoitzak % 25 balio du.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Hala eta guztiz ere, litekeena da ikasleek irakasgaia gainditzea komunikazio idatziari dagokionez gaitasunaren menderatze maila lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.

## 2. maila: Problema Ebazteko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

### 1. MENDERATZE MAILA

Problema zailak ebaztea, informazio iturri egokiak identifikatuta eta egituratuta.

### 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Identifikatzen ditu, irakasleen laguntzaz, problema bat ebazteko beharrezkoak diren iturriak.	Problema bat irakasleen laguntzaz ebazteko beharrezkoa den informazio egokia identifikatzen du. Araudi egokia, prozedurei buruzko eskuliburu teorikoak eta kasu errealen gaineko informazioa kontsultatzen du.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

<p><b>Informazio esanguratsua erabiltzen du, irakaslearen laguntzaz problema partziala ebazteko.</b></p>	<p>Problemaren ebazpena proposatzeko beharrezkoa den arauzko informazioa eta informazio teknikoa hautatzen du, errepikatzen den eta esanguratsurik ez den informazioa baztertuta, eta irakaslearen argibideei jarraitzen die.</p>
<p><b>Problemaren soluzio globala argudiatzen eta garatzen du, hainbat problema partzialen hariari jarraituta, irakaslearen laguntzaz.</b></p>	<p>Problemaren alderdi guztiak erlazionatzen ditu, eta beharrezkoak diren argudioak ematen ditu, alderdi bakoitza ebazteko eta gutzia osotasun bati lotzeko.</p>
<p><b>Prozesuan, lankidetzan dihardu beste ikasle batzuekin.</b></p>	<p>Haren eraginkortasuna nabarmentzen da, presiopean dagoenean, eta denborari etekina ateratzen dio, lasaitasuna galdu gabe.</p>

### 3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

Ekonomia eta Ogasun Sistema irakasgaiak koordinatzen du gaitasuna.

Gaitasuna kalifikatzen duten beste irakasgai batzuk: Kontabilitaterako Sarrera eta Finantza Kontabilitatea.

Ebaluazio sisteman kalifikatu ez arren, gaitasuna garatzeko lagungarriak diren beste irakasgai batzuk: Enpresen Kudeaketa I, Sindikatu Zuzenbidea eta Langileen Zuzendaritza eta Kudeaketa.

### 4. ZEREGINAK

Kasu praktikoak ebaztea bakarka nahiz taldeka, iturri egokiak erabilia.



## 5. EBALUAZIO SISTEMA

Ekonomia eta Ogasun Sistema (gaitasuna koordinatzen duena), Finantza Kontabilitatea eta Finantza Kontabilitatea irakasgaiak gaitasuna jasota dute beren ebaluazio protokoloetan, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen dute.

### Ekonomia eta Ogasun Sistema (gaitasuna koordinatzen duen irakasgaia)

1. Adierazle guztiak ebaluatzen ditu.
2. Gaitasunaren ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran argitaratzen da.
3. Gaitasuna ebaluatzen duten zereginak: Irakasgaia modu praktiko eta mailakatuan egituratzen da. Problema sinpleenetatik abiatzen da, gero eta problema konplexuagoetara jotzeko. Prestakuntza eta egiaztatze ebaluazioa bereizten ditugu. Prestakuntza ebaluazioaren oinarritzko eginkizuna gaitasunak eskuratzean izandako aurrerapena autoebaluatzea da, eta egunero egiten da ikasgelan taldeka ebatzitako problemen bidez. Egiaztatze ebaluazioa, berriz, problema konplexuen bakarkako ebazpenaren bidez egiten da. Ebaluazio mota hori irakasgaiaren azterketan egiten da.
4. Adierazle bakoitzaren pisua proportzionala da, eta gaitasunaren pisua irakasgaiaren % 40 da.

Irakasgaiaren ebaluazio irizpideak moodlen argitaratzen dira, hura emango den lauhilekoaren hasieran; hortaz, ikasle guztiak ezagutzen dute alde aurretik ebaluazio metodoa.

Prestakuntza lanak, logikoa denez, ez dira kalifikatzen (ez baita hori haien funtzioa). Halere, ikasleak lauhilekoaren hasieratik daki lan horiek beharrezkoak direla irakasgaia gainditu ahal izateko; izan ere, horien bidez eskuratuko ditu problemak bakarka ebatzi ahal izateko tresnak.





Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Egiatzatze ebaluaziorako erabilitako zereginak prestakuntza ebaluazioan garatutakoen antzekoak dira, baina problemak bakarka ebatzi behar dira. Ebaluazio tresna azterketa da. Horren barruan, kasu praktiko bat edo batzuk sartzen dira, eta ikasleek bakarka ebatzi behar dituzte, modu eraginkorrean. Amaierako kalifikazioan, kasu praktikoen pisua % 40 da. Kasu praktiko bakoitzean berdin ebaluatzen dira aurreko taulan aipatutako adierazle guztiak; izan ere, ezinezkotzat jotzen da problemaren bat ebaztea horrelakoren batean huts eginez gero.

## Kontabilitaterako Sarrera

Adierazle guztiak ebaluatzen ditu, eta ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran ematen da ezagutzera.

Gaitasuna ebaluatzeko zereginetan honako hauek egin behar dira:

- Ikasgelan entregatzeko lanak (teoriko-praktikoak), problema partzialak ebazteko.
- Enpresa erreal baten urteko kontuak bilatzea, eta haren ondare egoerari buruzko iruzkin bat egitea.
- Ikasgelaz kanpoko lanak (praktikoak), problema global bat ebazteko (merkataritza enpresa baten eragiketak idaztea eta horren kontabilizazioa egitea ekitaldi ekonomiko osoan).
- Banakako azterketa (teoriko-praktiko)

Ebaluatutako adierazleei honako pisu hau ematen zaie:

- 1. adierazlea=% 10
- 2. adierazlea=% 34
- 3. adierazlea=% 40
- 4. adierazlea=% 6



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Irakasgaiaren notan, gaitasunaren pisu globala % 90 da.

## Finantza Kontabilitatea

Adierazle guztiak ebaluatzen ditu, eta ebaluazio sistema ikasturtearen hasieran ematen da ezagutzera.

Gaitasuna ebaluatzeko zereginetan honako hauek egin behar dira:

- Ikasgelan entregatzeko lanak (teoriko-praktikoak), problema partzialak ebazteko.
- Ikasgelaz kanpoko lanak (praktikoak), problema global bat ebazteko (merkataritza enpresa baten eragiketak idaztea eta horren kontabilizazioa egitea ekitaldi ekonomiko osoan).
- Banakako azterketa (teoriko-praktiko)

Ebaluatutako adierazleei honako pisu hau ematen zaie:

- 1. adierazlea=% 10
- 2. adierazlea=% 34
- 3. adierazlea=% 40
- 4. adierazlea=% 6

Irakasgaiaren notan, gaitasunaren pisu globala % 90 da.

Ekonomia eta Ogasun Sistema, Kontabilitaterako Sarrera eta Finantza Kontabilitatea irakasgaien diseinua nahita egina dago gaitasun hau garatzeko, edo aukerak sortzen ditu ikasleek gaitasuna praktikan jartzeko.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunaren menderatze maila egokia lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



### 3. maila: Problema Ebazteko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

#### 1. MENDERATZE MAILA

Problema globalen ebazpenak proposatzea eta eraikitzea, bakarka eta taldeka.

#### 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Problema bati lotutako informazioa identifikatzen du.	Problema bat saihesteko edo konpontzeko informazio garrantzitsua identifikatzeko eta baztertzeko gai da.
Iturri egokiak erabiltzen ditu problema ebazteko.	Lege iturri egokietara jotzen du, problema ebazteko.
Problemarako konponbide sinesgarriak eta neurrikoak proposatzen ditu.	Kasuak aplikatzeko aukera aztertzen du, eta soluzioa definitzen du.
Lortutako soluzioa arrazoitzen du.	Ebazpena modu ulergarrian, nahikotasunez eta zehaztasunez arrazoitzen du.
Prozesuan, lankidetzan dihardu beste ikaskide batzuekin.	Soluzio adostuak lortzeko gai da.



Lan Harremanen U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

### **3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK**

Ikasgelako Praktiak I eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II.

### **4. ZEREGINAK**

Kasu praktikoetan planteatutako problemak ebaztea, bakarka eta taldeka.

### **5. EBALUAZIO SISTEMA**

Ikasgelako Praktiak I (gaitasuna koordinatzen duena) eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II irakasgaiak gaitasunaren ebaluazio sistema aplikatzen dute. Haien ebaluazio protokoloan jasota dago, eta ikasleak ebaluatzeko erabiltzen da.

#### **Ikasgelako Praktiak I**

Ikasturtearen hasieran adierazi bezala, irakasgaiak adierazle guztiak ebaluatzen ditu (adierazle bakoitzak % 20), Gizarte Segurantzaren arloan garrantzia duten suposizioak planteatzen dituzten zereginen gainean. Zeregin horiek bakarka eta taldeka egiten dira. Gaitasunari emandako pisu globala % 10 da, irakasgaiaren notaren gainean.

Beste ikaskideekin izandako lankidetzari buruzko adierazlea landuko da, ikasleen kopuruak horretarako aukera ematen badu.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

## Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II

Problema ebazteko gaitasuna: adierazle guztiak ebaluatzen dira, beste ikaskide batzuekin izandako lankidetzarena izan ezik. Horretarako, alderdi praktikoak planteatzen dira, eta, horiek ebazteko, kasu bakoitzari aplika dakiogkeen araudia eta jurisprudentzia erabili behar da. Gaitasunaren pisua irakasgaiaren ebaluazio jarraituari emandako notaren % 10 da.

Irakasgaia gainditzeak adierazten du ikasleek gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunaren menderatze maila egokia lortu gabe.

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



## 4. maila: Problemak Ebazteko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

### 1. MENDERATZE MAILA

Problema globalen ebazpenak proposatzea eta eraikitzea, bakarka eta taldeka, eraginkortasun maila handia erakutsita.

### 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Problema bat ebazteko beharrezkoa den informazioa modu autonomoan identifikatzen du.	Zuzen identifikatzen du problema bat ebazteko beharrezkoa eta egokia den informazioa
Iturri egokiak erabiltzen ditu problema modu autonomoan ebazteko.	Problema ebazteko informazio iturri egokiak ongi erabiltzen ditu. Informazio garrantzitsua eta erredundantea identifikatzen du, eta oinarritzko informazioa hautatzen du problema bat ebazteko.
Lortutako soluzioa arrazoitzen du.	Lortutako soluzioa arrazoitzen du, eta ongi argudiatutako ondorio argiak ematen ditu.
Problemaren neurriko soluzioak proposatzen ditu, modu autonomoan.	Problemarako soluzio neurrikoak eta sinesgarriak proposatzen ditu, eta problema ebazteko informazioa modu egokian aplikatzen du.
Lankidetzan dihardu beste ikasle batzuekin, prozesuan.	Haren eraginkortasuna nabarmentzen da, presiopean dagoenean, eta denborari etekina ateratzen dio, lasaitasuna galdu gabe.



## 1. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIAK

Enpresaren zerga erregimena

## 2. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Kasu praktikoak ebaztea, iturri egokiak erabilia, bakarka nahiz taldeka.

## 5. EBALUAZIO SISTEMA

Irakasgaia modu praktiko eta mailakatuan egituratzen da. Problema sinpleetatik (zerga arau bakarrean oinarritutakoak) abiatzen da, eta, aurrera egin ahala, gero eta problema konplexuagoak lantzen dira, hainbat zerga araudi erabiltzea eta askotariko ezagutzak uztartzea eskatzen dutenak, bai erabilitako araudiei buruzkoak bai graduko beste irakasgai batzuei buruzkoak (hala nola, Kontabilitatea).

Prestakuntza eta egiaztatze ebaluazioa bereizten ditugu. Prestakuntza ebaluazioaren oinarritzko eginkizuna gaitasunak eskuratzean izandako aurrerapena autoebaluatzea da, eta egunero egiten da ikasgelan taldean lankidetzaz ebatzitako problemen bidez.

Egiaztatze ebaluazioan, problema konplexuak bakarka ebatzi behar dira, eta irakasleari eman behar zaizkio, kalifikatu ditzan. Ebaluazio mota hori hirutan egiten da, lauhilekoan.

Irakasgaiaren ebaluazio irizpideak moodlen argitaratzen dira, hura emango den lauhilekoaren hasieran; hortaz, ikasle guztiek ezagutzen dute aldez aurretik ebaluazio metodoa.





Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Prestakuntza lanak, logikoa denez, ez dira kalifikatzen (ez baita hori haien funtzioa). Ikasleari lauhilekoaren hasieratik jakinarazten zaio lan horiek guztiz beharrezkoak direla irakasgaia gainditu ahal izateko; izan ere, horien bidez eskuratuko dituzte problemak autonomiaz ebatzi ahal izateko beharrezkoak diren tresnak.

Egiaztatze ebaluaziorako erabilitako zereginak prestakuntza ebaluazioan garatutakoen antzekoak dira, baina haien ebazpena modu autonomoan egin behar da. Ikasleek, beraz, aldez aurretik ezagutzen dute ebaluazio eredua. Ebaluazio horretan, enpresa baten zerga sistemari lotutako hainbat kasu praktiko ebatzi behar dira bakarka, ikasgelan bertan. Problema horiek konplexutasunaren arabera mailakatuta daude, eta bakoitzaren ehuneko amaierako kalifikazioan ezagutzera ematen da, aldez aurretik.

Modu autonomoan ebatzi beharreko kasu praktiko bakoitzari amaierako kalifikazioan emango zaion pisua honela mailakatzen da:

Lehen kasu praktikoa: 20%

Bigarren kasu praktikoa: 40%

Hirugarren kasu praktikoa: 40%

Kasu praktiko bakoitzean berdin ebaluatzen dira aurreko taulan aipatutako adierazle guztiak; izan ere, ezinezkotzat jotzen da problemaren bat ebaztea horrelakoren batean huts eginez gero.

Ikasleek irakasgaia gainditzeak adierazten du gaitasun orokorrari dagokion menderatze maila gainditu dutela. Nolanahi ere, gerta daiteke ikasleek irakasgaia gainditzea, gaitasunaren menderatze maila egokia lortu gabe.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

Mailako koordinazio taldea da graduko gaitasun orokorraren ebaluazioa egokitzeko tresna. Prozedura honako hau da:

1. Gaitasuna ebaluatzen edo baloratzen duten irakasleek gaitasun orokorraren ebaluazioa kontrastatzea edo osatzea beharrezkotzat jotzen badute, kasuaren berri emango diote irakasgaiaren irakasle taldeari, kasua sendotasunez eta, ahal den neurrian (errubrika, edo beste proba batzuk), ebidentzia objektiboez argudiatzeko eta dagokion arretaz aztertzeko.
2. Irakasgaiaren irakasle taldeak kasua beste irakasgai batzuekin kontratatzeari edo osatzeari egoki irizten badio, irakasgaiko arduradunak mailako koordinazio taldeari helaraziko dio kasua.
3. Dagozkion kontsultak diskrezioz egin ondoren, mailako koordinazio taldeak erabakiko du, eta irakasgaiaren arduradunak horren berri emango dio bere irakasle taldeari. Era berean, ikastegiko zuzendaritza informatu ondoren, aholkularitza eska daiteke.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea



## GRAL (4. maila): Problemak Ebazteko gaitasun orokorrari buruzko ikasketen gidaliburua

### 1. MENDERATZE MAILA

Problema globalen soluzioak proposatzea eta eraikitzea, modu autonomoan.

### 2. IKASKUNTZA ADIERAZLEAK ETA EMAITZAK

ADIERAZLEAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK
Problema bati lotutako informazioa identifikatzen du	Problema bat saihesteko edo konpontzeko informazio garrantzitsua identifikatzeko eta baztertzeko gai da.
Iturri egokiak erabiltzen ditu, problema ebazteko.	Lege iturri egokietara jotzen du, problema ebazteko.
Problemarako konponbide sinesgarriak eta neurrikoak proposatzen ditu.	Kasuak aplikatzeko aukera aztertzen du, eta soluzioa definitzen du.
Lortutako soluzioa arrazoitzen du.	Ebazpena modu ulergarrian, nahikotasunez eta zehaztasunez arrazoitzen du.



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

### 3. GAITASUNA GARATZEKO ETA EBALUATZEKO LAGUNGARRIAK DIREN IRAKASGAIK

GRALa

### 4. GAITASUNA EBALUATZEKO ZEREGINAK

Memoria idazteko lanaren jarraipen prozesuan tutorearekin elkarrizketak egitea, eta jarrera erabakigarria erakustea, GRALa egitean izandako zailtasunen aurrean.

GRALaren idazketan, jarrera erabakigarria erakustea, aztergaiari lotutako arazo akademikoen edo sozialen aurrean.

GRALa epaimahai baten aurrean aurkeztea, eta haren erantzunei erantzutea, jarrera erabakigarria erakutsiz bai erantzuteko moduan bai GRALaren aztergaiari planteatutako problemaren aurrean.

### 5. EBALUAZIO SISTEMA

Elementu hauek identifikatu behar dira:

- a. Adierazle guztiak ebaluatzea.
- b. Gaitasunaren ebaluazio sistema, ikasturtearen hasieran argitaratzea.
- c. Gaitasuna ebaluatzeke lana(k) (labur)
- d. GRALaren notan, gaitasunari emandako pisu globala.



Lan Harreman U.E.  
E.U. de Relaciones Laborales  
The University College of Labour Relations



Gaitasun orokorren ikasketen gidaliburua: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako gradua. 2014/2015 ikasturtea

GRAL prozesua baloratzeko txantiloia, tutoreak beteta.

GRALaren amaierako memoriaren ebaluazioa, tutoreak eta epaimahaiak egina.

Epaimahaiaren aurrean egindako GRALaren defentsa eta azalpena baloratzea.